

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

URBINAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Hasierako onarpena ematea etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa arautzen duen ordenantzari

Kontzeju honek, 2016ko uztailaren 29ko bilkuran, erabaki zuen hasierako onarpena ematea etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa arautzen duen ordenantzari.

Eta hori jendaurrean jartzen da, interesdunek kontzeju aretoan espedientea aztertu eta egoki deritzeten erreklamazioak egin ditzaten. Erreklamazioak idatziz egingo dira, eta horretarako hogeita hamar egun izango dituzte, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Adierazitako epean erreklamaziorik aurkezten ez bada, ordenantza behin betiko onartuta geratuko da.

Urbina, 2016ko irailaren 1a

Lehendakaria

ANA EMILIO-YUS URRESTI